8. En esta instalación se deberá respetar a las demás personas usuarias y en especial no se podrá: correr por la playa de la piscina, realizar juegos peligrosos, agarrarse o sentarse en las corcheras, saltar de las plataformas de salida ni nadar a lo ancho de la piscina.

9. Aquellas personas que necesiten algún material para su práctica deportiva deberán solicitarlo a la persona socorrista. En caso de recibir la autorización, una vez finalizado su uso, el material será devuelto a la misma.

10. No está permitido nadar con aletas, ni con elementos que puedan causar daño a otras personas bañistas, salvo las excepciones de entrenamiento deportivo, cursillos y en aquellas ocasiones en las que el socorrista considere que no perturba la actividad normal de las demás personas usuarias.

2. KAPITULUA: GIMNASIOAK

*18. artikulua.*

1. Gimnasioetan Udalaren Kirol Zerbitzuak antolatutako edo baimendutako jarduera bat egiten denean, monitoreak eta garatzekoa den jardueran izena emana dutenak soilik sartu ahalko dira barrura.
2. Saio bakoitza bukatu ondoren, erabilitako materiala bere lekuan utzi beharko da.

CAPÍTULO 2: DE LOS GIMNASIOS

*Artículo 18.*

1. Cuando se realiza una actividad organizada o autorizada por el Servicio Municipal de Deportes en los gimnasios, el acceso a los mismos queda restringido a los monitores y las personas usuarias inscritas en la actividad a desarrollar.
2. El material, una vez terminada la sesión, deberá dejarse en su lugar correspondiente.

3. KAPITULUA: FITNESSEKO ARETOA

*19. artikulua.*

1. Beharrezkoa da instalazio horietan toaila erabiltzea, erabiltzaile bakoitzak bere izerdia garbitzeko.
2. Debekatuta dago fitnesseko aretora janaria eramatea edo beirazko gauzak sartzea, eta aldageletako armairuetan utzi behar dira poltsak, motxilak, arropa, oinetakoak...
3. Kontuan izanda zer lesio-arrisku dakarren berekin aparatuak erabiltzeak, bai duten pisuagatik, bai duten konplexutasunagatik, debekatua dute 16 urtetik beherakoek areto horretara sartzea. Hala ere, zuzendaritzaren baimen berezia dutenek erabili ahalko dute areto hori.
4. Materiala erabili ondoren, bere tokian utzi behar da.
5. Udalaren Kirol Zerbitzuaren pertsonal teknikoak programa indibidualak prestatuko dizkie hala eskatzen duten erabiltzaileei. Aurrez, ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu behar dute.
6. Erabiltzaile guztiek aparatuak erabiltzeko aukera izan dezaten, oro har, aparatu kardiobaskularrak erabiltzeko gehieneko denbora 20 minutu izango da.

CAPÍTULO 3. SALA DE FITNESS

*Artículo 19.*

1. Es obligatorio el uso de la toalla en esta instalación para limpiar el sudor de cada persona usuaria.
2. Está prohibido llevar comida o introducir objetos de cristal en el interior de la sala de Fitness, debiendo dejarse en las taquillas las bolsas, mochilas, ropa, calzado….
3. Teniendo en cuenta el riesgo de lesiones que conlleva la utilización de los aparatos, tanto por el peso como por la complejidad de ellos, está prohibido que entren en la sala menores de 16 años. Sin embargo, quienes tengan un permiso especial de la dirección podrán utilizar este local.
4. El material, una vez utilizado, deberá dejarse en su lugar correspondiente.
5. El personal técnico del Servicio Municipal de Deportes realizará programas individuales a aquellos/as usuarios/as que los soliciten, previo pago del precio público o tasa establecido.
6. Para que todas las personas usuarias tengan posibilidad de utilizar los aparatos, por lo general, la utilización máxima de los aparatos cardiovasculares será de 20 minutos.

4. KAPITULUA: KIROL-PISTAK, FRONTOIAK ETA SQUASHAK

*20. artikulua.*

1. Kirol-pistetan, frontoietan eta squashetan, debekatua dago zorua zikintzen, markatzen edo hondatzen duten zapatilak erabiltzea. Era berean, debekatua dago espazio horiekin zerikusirik ez duten beste kirol-modalitate batzuetako tresnekin jokatzea, non eta zuzendaritzak baimendutakoak ez diren.
2. Kirol-espazio horietako berezko kirol-jarduerak sustatzen dituzten kirol-entitateek lehentasuna

CAPÍTULO 4: DE LAS PISTAS POLIDEPORTIVAS, FRONTONES Y SQUASH

*Artículo 20.*

1. En las pistas polideportivas, frontones y en los squash está prohibido el uso de zapatillas que ensucien, marquen o deterioren el pavimento, así como la utilización de herramientas de juego de otras modalidades deportivas ajenas a estos espacios, a excepción de los autorizados por la dirección.
2. Las entidades que promocionan las actividades deportivas propias de estos espacios deportivos

izango dute horien erabileran. Behin entitateen ordutegiak finkatutakoan, libre geratzen diren orduak edozein erabiltzailek erreserbatu ahalko ditu.

tendrán un uso preferente en los mismos. Una vez establecidos sus horarios, las horas que queden libres podrán ser reservadas por cualquier persona usuaria.

## 5. KAPITULUA: SAUNAK

## CAPÍTULO 5: DE LAS SAUNAS

*21. artikulua.*

1. Saunako zerbitzua 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da. Hortik beherakoek ezingo dute erabili, pertsona heldu baten ardurapean ez bada.
2. Ordutegi aldetik ahalbide mugatua dutenez gero, orduen txandak ezar daitezke.
3. Nahitaezkotzat ezartzen da saunan sartu baino lehen dutxatzea eta toaila erabiltzea han barruan esertzeko edo etzateko. Debekatua dago saunara kaleko jantziekin eta edozein eratako oinetakoekin sartzea.
4. Gorputzetik metalezko gauza guztiak kendu behar dira: belarritakoak, eskumuturrekoak, eraztunak, lepokoak... Saunako saioak gehienbat biluzik egingo dira.
5. Gorputzeko higienearekin zerikusi estua duen zerbitzua izanik, hori zaintzeko hartu behar diren neurri guztiak zorrotz hartzea gomendatzen da.
6. Jokabide zuzena zaindu behar da, beste erabiltzaileei ez eragozteko. Debekatuta dago telefono mobilak erabiltzea.
7. Gorputzaren tratamenduko barrutian, debekatua dago bizarra moztea, jatea, ura ez den beste edozer edatea, erradiadoreetan lozioak botatzea eta ilea tindatzea.
8. Aldian behin, garbiketa bereziak egiteko, sauna itxi egingo da. Aldez aurretik emango zaie erabiltzaileei horren berri.

*Artículo 21.*

1. El servicio de sauna está dirigido a las personas usuarias mayores de 16 años. Las personas menores de edad sólo podrán utilizarlo bajo la supervisión de una persona adulta.
2. Por su capacidad horaria limitada se podrán establecer turnos horarios.
3. Se establece como obligatorio el ducharse antes de entrar en la sauna y utilizar una toalla para sentarse o tumbarse dentro de la misma. Está prohibido entrar en la sauna con ropa de la calle y con cualquier tipo de calzado.
4. Hay que quitarse todos los objetos de metal: pendientes, pulseras, anillos, collares… Principalmente, las sesiones de sauna se tomarán de forma desnuda.
5. Por ser un servicio estrechamente relacionado con la higiene corporal se recomienda extremar las medidas en esta dirección.
6. Deberá mantenerse una actitud correcta con el resto de usuarios/as para no molestarles. Queda prohibido el uso de teléfonos móviles.
7. En la zona de tratamiento corporal está prohibido afeitarse, comer, beber otra cosa que no sea agua, verter lociones en los radiadores y teñirse el pelo.
8. De forma periódica se cerrará la sauna para llevar a cabo trabajos de limpieza especiales. De antemano, se informará de ello a las personas usuarias.

## 6. KAPITULUA: ATLETISMOKO PISTA

## CAPÍTULO 6: DE LA PISTA DE ATLETISMO

*22. artikulua.*

1. Zoru sintetikoan ariketak egiteko, atletismoarekin zerikusia duten materialak soilik erabili ahalko dira; baloiarekin jokatzeko aukera ere izango da.
2. Entrenamenduetarako materialak erabiltzen dituzten klubek, entrenamendua amaitutakoan, materiala bere biltegietan utzi beharko dute.
3. Udalaren Kirol Zerbitzuak behar bezala arautuko ditu jaurtiketen entrenamenduak (xabalina, pisua, diskoa eta mailua), erabiltzaile guztientzat segurtasuna bermatzeko irizpideekin.
4. Atletismoko txapelketa bat antolatzen denean, Udalaren Kirol Zerbitzuak murriztu egingo du

*Artículo 22.*

1. En el suelo sintético solo se podrán realizar ejercicios con materiales que tengan que ver con el Atletismo; también se podrá jugar con balón.
2. Aquellos clubes que utilicen material para sus entrenamientos, una vez finalizados los mismos, deberán dejar el material en sus almacenes correspondientes.
3. El Servicio Municipal de Deportes regulará oportunamente los entrenamientos de lanzamientos (jabalina, peso, disco y martillo) con criterios de seguridad para todas las personas usuarias.
4. Cuando se organice un campeonato de Atletismo el Servicio Municipal de Deportes

instalazioaren erabilera.

7. KAPITULUA: BELAR ARTIFIZIALEKO FUTBOL-ZELAIAK

*23. artikulua.*
1. Belar artifizialeko zelairako egokiak diren oinetakoak erabili beharko dira. Lehiaketa ofizialak direnean, beste ekipoetako jokalariei arau horren berri emango zaie.
2. 7nakako futboleko lehiaketetarako ateak jarri edo kendu nahi direnean, ezingo dira arrastaka eraman edo ekarri.
3. Zelaian debekatua dago erretzea edota zelaia zikintzen edo hondatzen duten janariak jatea (pipitak, gozokiak).
4. Anomaliaren bat ikusiz gero, atezaintzan jakinarazi behar da.

8. KAPITULUA: TENISEKO ETA PADELEKO PISTAK.

*24. artikulua.*
1. Erabiltzaileek pistako giltza atezaintzan jaso beharko dute, eta leku berera bueltatu beharko dute behin jarduera amaitutakoan.

9. KAPITULUA: ESKALADA-MURRUAZ.

*25. artikulua.*
1. Instalazioa erabiltzeko, gomendagarria da federazioaren lizentzia edukitzea.
2. Esperientziarik edo jakintzarik izan ezean, eskalada-murruaren eremuan ez eskalatzea gomendatzen da, begirale baimendun baten aginduei jarraituz ez bada behintzat.
3. Eskalada-murrua erabiltzeko gutxienezko adina 16 urte da. Gazteagoek adinez nagusia den arduradun batek lagunduta erabili ahalko dute eskalada-murrua.
4. Eskalada-murruaren erabilera udalaren kiroldegitik kudeatzen denez gero, haren ordutegi bera izango du, eta erabiltzaileek kiroldegiko atarian erregistratu edo erosi beharko dute beren sarrera.
5. Bulderreko eremua banaka erabil daiteke.

6. Eskalada-eremua, marra gorriraino, banaka erabil daiteke. Marra gorritik gora, derrigor erabili behar da Norbera Babesteko Ekipamendua (NBE), kide baten laguntzarekin.

7. Ez egin murruan gora beste eskalatzaile baten azpitik eta haren bertikalean.
8. Jaisteko, hobe da horman behea egitea jauzi

restringirá el uso de la instalación.

CAPÍTULO 7: CAMPOS DE FÚTBOL DE HIERBA ARTIFICIAL

*Artículo 23.*
1. Se deberá utilizar calzado adecuado al campo de hierba artificial. En caso de competiciones oficiales, se informará a los jugadores y jugadoras de otros equipos de la existencia de esta norma.
2. Para colocar o quitar las porterías para competiciones de fútbol 7, no podrán llevarse ni traerse arrastras.
3. En el campo está prohibido fumar o ingerir cualquier alimento que lo ensucie o deteriore (pipas, caramelos).
4. Cualquier anomalía que se observe deberá ser comunicada en la conserjería.

CAPÍTULO 8: DE LAS PISTAS DE TENIS Y DE PADEL.

*Artículo 24.*
1. Las personas usuarias deberán recoger la llave de la pista en la conserjería y retornarla al mismo lugar una vez finalizada la actividad

CAPÍTULO 9: DEL ROCÓDROMO.

*Artículo 25.*
1. Es aconsejable estar en posesión de la licencia federativa para utilizar la instalación.
2. Se recomienda no escalar en la zona del rocódromo si no se tiene experiencia o conocimiento, salvo que sea bajo las indicaciones de una persona autorizada.
3. La edad mínima para utilizar el rocódromo es de 16 años. Las personas más jóvenes podrán utilizar el rocódromo acompañadas de una persona responsable mayor de edad.
4. Puesto que el rocódromo se gestiona desde el polideportivo municipal, tendrá su mismo horario y las personas usuarias deberán registrar o adquirir su entrada en la recepción del polideportivo.
5. La zona de búlder se puede utilizar individualmente.
6. La zona de escalada, hasta la línea roja se puede utilizar individualmente, de la línea roja para arriba es obligatorio utilizar el Equipo de Protección Individual (EPI) con la colaboración de un acompañante.
7. No trepar por debajo y en la vertical de otra persona que está escalando.
8. Para descender, es aconsejable destrepar en

egitea baino.
9. Eskalatzen hasi aurretik, komeni da NBEa berrikustea.
10. NBE guztiak homologatua izan behar du (arnesa, soka, mosketoiak…).
11. Nahitaezkoa da eskalatzeko oinetakoak erabiltzea.
12. Debekatua dago "8"a aseguru moduan erabiltzea. Horren ordez, "gri-gri" autoblokeagailua erabili beharko da.
13. Udaleko Kirol-Zerbitzuaren baimenik gabe, ez dago onartua heldulekuak manipulatzea, ez eta lekuz aldatzea ere.

ZAZPIGARREN TITULUA
ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA

1. KAPITULUA: KIROLEAN ARITZEKO ERRESERBEN ARAUDIA.

*26. artikulua.*
1. Kirol-pistak, frontoiak, squashak, teniseko pistak, padeleko pista eta futboleko zelaiak erreserbatu ahalko dira.
2. Udalaren Kirol Zerbitzuak, behin udalerriko ikastetxeekin eta kirol-entitateekin instalazioak erabiltzeko ordutegiak adostutakoan, libre geratu diren orduak beste erabiltzaile batzuek baliatzeko xedatu ahalko ditu.

3. Udalaren Kirol Zerbitzuak, beharrezkoa gertatzen bada, instalazioak erreserbatzeko zozketa iragarriko du. Zozketan parte hartzeko eskaerak horretarako jarritako eguna eta ordua baino lehen egin beharko dira.
4. Zozketa bidez erreserbatzen ez diren instalazioetako orduak zuzenean izena emanda alokatu ahalko dira.
5. Urteko erreserben ordainketa edozein banketxetan domiziliatutako erreziboaren bitartez egingo da.
6. Instalazio guztien urteko erreserbak Udalaren Kirol Zerbitzuaren bulegoetan egingo dira; noizbehinkakoak, berriz, erabili nahi den instalazioan bertan.
7. Justifikatutako kasuengatik denean, Udalaren Kirol Zerbitzuak inoizka erreserba eten ahalko du; horrelakoetan, erabiltzaileei itzuli egingo zaie ordaindutako zenbatekoa.

8. Ikuskizun publikoen araudiaren mende dauden kirol-jarduerek 27. artikuluan jasotako arauek diotena bete beharko dute.

lugar de saltar.
9. Es aconsejable revisar el EPI antes de iniciar la escalada.
10. Todo el EPI ha de estar homologado (arnés, cuerda, mosquetones…).
11. Es obligatorio utilizar pies de gato.

12. No está permitido el uso del "8" como seguro, en su lugar se deberá utilizar el autobloqueante "gri-gri".
13. No está permitido manipular ni cambiar de sitio las presas sin la autorización del Servicio Municipal de Deportes.

TÍTULO SÉPTIMO
DE LA NORMATIVA DE RESERVAS

CAPÍTULO 1: DE LA NORMATIVA DE RESERVAS PARA USOS DEPORTIVOS.

*Artículo 26.*
1. Las pistas polideportivas, los frontones, los squash, las pistas de tenis, la pista de padel y los campos de fútbol podrán ser reservados.
2. El Servicio Municipal de Deportes, una vez consensuados los horarios de utilización de las instalaciones con los centros escolares y las distintas entidades deportivas del Municipio, podrá disponer las horas que queden libres para su utilización por otras personas usuarias.
3. El Servicio Municipal de Deportes, si es preciso, anunciará el sorteo para la reserva de las instalaciones. Las solicitudes para participar en el sorteo habrán de realizarse antes del día y hora establecidos.
4. Aquellas horas de instalaciones que no se reserven por sorteo se podrán alquilar por inscripción directa.
5. El pago de las reservas anuales se hará mediante recibo domiciliado en cualquier entidad bancaria.
6. Las reservas anuales de todas las instalaciones se harán en las oficinas del Servicio Municipal de Deportes y las puntuales en la instalación que se desea utilizar.
7. Por causas justificadas el Servicio Municipal de Deportes podrá suspender puntualmente la reserva, reintegrando su importe a las personas usuarias.

8. Las actividades deportivas que estén sometidas a la normativa sobre espectáculos públicos se ajustarán a las normas recogidas en el artículo 27.

2. KAPITULUA: KIROLA EZ BESTE ZERBAITETAN ARITZEKO ERRESERBEN ARAUDIA.

*27. artikulua.*

Ikuskizun publikoei buruzko araudiaren mende dagoen jardueraren bat antolatzeko Udalaren Kirol Zerbitzuko instalazioak erreserbatu nahi izanez gero, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Dagokion eskabidean, eskatzailearen datuez gain, jarduerari buruzko datu garrantzitsuenak ere adierazi beharko dira, hala nola nork parte hartuko duen, zenbatsu iraungo duen... Eskabidea gutxienez hilabete lehenago egin beharko da.

2. Eskaerari baiezkoa ematen bazaio, jarduerako eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago, eskaeragileak ondoko hauek egin beharko ditu:

a) Dagokion instalazioaren zesioko kontratua sinatu.

b) Eskatutako instalazioaren ardura duen pertsonarekin bilera tekniko bat egin.

c) Dagokion tasa edo prezio publikoa ordaindu.

d) Ebentuaren ondoriozko erantzukizun zibila bere gain hartuko duen aseguru-poliza bat aurkeztu, kasu bakoitzean ezartzen den kopurukoa.

e) Udalaren Kirol Zerbitzuak ezartzen duen bermea depositatu, instalazioak ondo zainduko direla ziurtatzeko.

Udalaren Kirol Zerbitzuaren instalazioak erabiltzeko baimena duten pertsona edo entitateek ikuskizunen arloan aginduzkoak diren baimenak lortu beharko dituzte. Baimena badutela egiaztatzeko, horren kopia entregatu beharko diote Udalaren Kirol Zerbitzuari, gutxienez jarduerako eguna baino bost egun lehenago; horrez gain, jardueraren beraren emergentziako planaren kopia ere entregatu beharko da, halakorik behar izanez gero.

3. Erabiltzeko zesioa kontratatutako jarduera egiteko izango da; zesioaren barruan sartzen da, beraz, lehenago edo geroago probasaioetarako edo muntalanetarako erabiltzea, eta hori guztia Udalaren Kirol Zerbitzuarekin partikularki hitzartuko da.

4. Instalazioak erabilitakoan, hasieran zeuden bezalaxe utzi beharko dira.

5. Udalaren Kirol Zerbitzuaren instalazioetan ikuskizun publikoak antolatzeko baimena duten pertsona edo entitateek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Esparruan dauden iragarkiak errespetatzea.

b) Ikuskizuna antolatzeak dakartzan gastuak bere gain hartzea.

CAPÍTULO 2: DE LA NORMATIVA DE RESERVAS PARA USOS NO DEPORTIVOS.

*Artículo 27.*

La reserva de las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes para actividades sometidas a la normativa sobre espectáculos públicos se ajustará a las siguientes reglas:

1. En la solicitud correspondiente deberán figurar, además de los datos de la persona solicitante, los datos relevantes del acto, tales como intervinientes, duración estimada... La solicitud deberá realizarse como mínimo con un mes de antelación.

2. En el caso de que la solicitud sea atendida favorablemente, con una antelación mínima de quince días a la celebración del acto, la persona solicitante deberá:

a) Proceder a la firma del contrato de cesión de la instalación correspondiente.

b) Mantener una reunión técnica con la persona responsable de la instalación solicitada.

c) Hacer efectiva la tasa o precio público correspondiente.

d) Presentar una póliza de seguro que cubra la responsabilidad civil derivada del evento y por la cuantía que se establezca en cada caso.

e) Depositar la fianza que establezca el Servicio Municipal de Deportes en garantía del cuidado de las instalaciones.

Las personas o entidades autorizadas para el uso de las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes deberán obtener las autorizaciones preceptivas en materia de espectáculos. Para acreditar su obtención deberá entregarse copia de las mismas al Servicio Municipal de Deportes con una antelación mínima de cinco días a la celebración del acto, así como copia, en su caso, del Plan de emergencia propio del acto.

3. La cesión de uso será para la realización del acto contratado, comprendiendo por tanto, la utilización anterior o posterior para ensayos o montajes, que serán convenidos en particular con el Servicio Municipal de Deportes.

4. Se deberá dejar la instalación en las mismas condiciones en que se encontraba al principio.

5. Serán obligaciones de las personas o entidades autorizadas para la celebración de espectáculos públicos en las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes las siguientes:

a) Respetar los anuncios existentes en el recinto.

b) Asumir los gastos derivados de la organización

c) Ikuskizuna muntatzeko, segurtasuna bermatzeko, sarbideak kontrolatzeko eta ikus-entzuleak kokatzeko behar den pertsonala kontratatzea.
d) Baimenik gabeko ibilgailuetatik eta era guztietako oztopoetatik libre mantentzea segurtasuneko zona eta larrialdietako irteerak.

e) Esparrua eta kanpoaldeko segurtasuneko eremua inolako saltokirik gabe mantentzea.

) Jendea esparrura sartzeko ateak dena delako jarduera hasi baino gutxienez ordu eta erdi lehenago irekitzea.

del espectáculo.
c) Contratar el personal necesario para los montajes, la seguridad, el control de accesos y la acomodación del público.

d) Mantener libre de vehículos que no estén debidamente autorizados y de obstáculos de todo tipo la zona de seguridad y las salidas de emergencia.
e) Mantener libre de puntos de venta de todo tipo el recinto, así como la zona de seguridad exterior.
f) Abrir las puertas de acceso al recinto para el público con una hora y media de adelanto como mínimo a la hora de comienzo del acto en cuestión.

## ZORTZIGARREN TITULUA
## SANTZIOAK

*28. artikulua.*
Erregelamendu honetan seinalatutako arauak ez betetzea santzioa merezi duen arau-haustea izango da.

*29. artikulua.*
Instalazioetako arduradunek ahalmena dute behar den jokabidea ageri ez duten pertsonei ohartarazteko eta, hala egin behar izanez gero, baita instalazioetatik kanpora botatzeko ere.

*30. artikulua.*
Udalaren Kirol Zerbitzuaren instalazioak erabiltzen dituztenek jaramon egin behar diote hango pertsonalak esandakoari, instalazioak eta kirol-materialak berezko duten xedearen arabera erabiliz eta pertsona edo ondasunei egin dakizkiekeen kalteei erantzunez.

*31. artikulua.*
Erabiltzaile guztiak onartzen du kirola praktikatzeak dakarren arriskua.
Udalaren Kirol Zerbitzuko instalazioak erabiltzearen kariaz gerta daitezkeen kalteak ezingo zaizkio leporatu, ezta ordainik eskatu ere, ez Udalaren Kirol Zerbitzuari, ez Udalari, salbu eta instalazioen ardura duen pertsonalaren erruz edo arduragabekeriaz gertatuak badira, baldin halakorik bada, edo kausazko erlazioa badute instalazioen edo materialaren egoera txarrarekin.

*32. artikulua.*
Udalaren Kirol Zerbitzuko pertsonalak esandakoari jaramonik egiten ez dionak edo esandakoaren kontrakoa egiten duenak edota instalazioak eta materialak haien xedearekin bat

## TÍTULO OCTAVO
## SANCIONES

*Artículo 28.*
El incumplimiento de las normas marcadas en este reglamento constituye infracción merecedora de sanción.

*Artículo 29.*
Las personas responsables de las instalaciones tienen la facultad de apercibir, e incluso de expulsar de las instalaciones, a aquellas personas que no observen la conducta debida.

*Artículo 30.*
Quienes utilicen las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes deberán de respetar las indicaciones del personal del mismo, disfrutando de aquellas y del material deportivo conforme al fin que le es propio y respondiendo de los daños que pudieran causar a personas y bienes.

*Artículo 31.*
Toda persona usuaria acepta el riesgo derivado de la práctica deportiva.
Los daños que pudieran producirse con ocasión de la utilización de las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes no serán imputables ni exigible su resarcimiento al Servicio Municipal de Deportes ni al Ayuntamiento, salvo que mediara culpa o negligencia del personal encargado de las mismas, si lo hubiera, o trajeran relación causal del mal estado de las instalaciones o material.

*Artículo 32.*
Quienes contraviniesen o no atendieran las indicaciones del personal del Servicio Municipal de Deportes o no utilizaran las instalaciones y material de acuerdo con su finalidad, así como,

ez datorren beste zerbaitetarako erabiltzen dituenak, bai eta, oro har, lokaletan edo instalazioetan kalteren bat egiten duenak ere, egindako kalteari dagokionak pagatzeaz gain, infrakzioen eta santzioen ondoko sailkapen honen araberako santzioa jasoko du:

**Hutsegite oso larriak:**

- Instalazioetan, Udalaren Kirol Zerbitzuaren edo beste erabiltzaile batzuen ondasunak ebastea.
- Arauak ez betetzeagatik, lokaletan, instalazioetan edo materialetan 500 euro baino gehiagoko balioko kalteak egitea.
- Beste erabiltzaileei edo Udalaren Kirol Zerbitzuko pertsonalari eraso edo irain egitea; pertsonen ohorearen edo intimitatearen aurkako erasoak eta eskandaluak egitea.
- Hutsegite larriak berriro egitea.
- Abonatu-txartelak beste batzuei lagatzea edo faltsifikatzea instalazioetara sartzeko.

**Hutsegite larriak:**

- Udalaren kirol-instalazioetan desordena publikoak kausatzea, betiere oso larriak ez badira.
- Arauak ez betetzeagatik, lokaletan, instalazioetan edo materialetan 100 eta 500 euro bitarteko balioko kalteak egitea.
- Beste erabiltzaileekin edo Udalaren Kirol Zerbitzuko pertsonalarekin begirunerik ez izatea.
- Hutsegite arinak berriro egitea.
- Araudi higieniko-sanitarioa ez betetzea.

**Hutsegite arinak:**

- Arauak ez betetzeagatik, lokaletan, instalazioetan edo materialetan 100 euro baino gutxiagoko balioko kalteak egitea.
- Udalaren Kirol Zerbitzuko pertsonalak esandakoa ez betetzea.

Egindako kalteen zenbatekoak bost urtez behin eguneratuko dira.

**SANTZIOAK**

**Infrakzio oso larriak:**

- Bi urtetik gehienez laura bitarteko epean, abonatu izateari uztea eta/edo

quienes, en general, causaran daño en los locales o instalaciones, además del pago correspondiente al daño causado, atendiendo al grado de gravedad de la falta, percibirán una sanción de acuerdo a la siguiente clasificación de infracciones y sanciones:

**Faltas muy graves:**

- Sustracción de bienes del Servicio Municipal de Deportes o de otros usuarios en las instalaciones.
- Daños causados por incumplimiento de la normativa en los locales, instalaciones o materiales por valor superior de 500 euros.
- Agresiones , insultos a otras personas usuarias, al personal del Servicio Municipal de Deportes; escándalos y atentados contra el honor o la intimidad de las personas.
- La reincidencia de faltas graves.
- La cesión de carnés de abonado a otras personas usuarias o su falsificación para acceder a las instalaciones.

**Faltas graves:**

- Los desordenes públicos en las instalaciones deportivas municipales, si no son muy graves.
- Daños causados por incumplimiento de la normativa en los locales, instalaciones o materiales por valor de entre 100 y 500 euros.
- Desconsideración con otras personas usuarias o con el personal del Servicio Municipal de Deportes.
- La reincidencia en faltas leves.
- Incumplimiento de la normativa higiénico-sanitaria.

**Faltas leves:**

- Daños causados por incumplimiento de la normativa en los locales, instalaciones o materiales por valor inferior a 100 euros.
- No cumplir las indicaciones del personal del Servicio Municipal de Deportes.

Las cifras de los daños causados se actualizarán cada cinco años.

**SANCIONES**

**Infracciones muy graves:**

- Pérdida de la condición de persona abonada y/o prohibición de la utilización de las instalaciones por un período de dos años hasta un máximo de cuatro años.

instalazioak ezin erabili izatea.

**Infrakzio larriak:**

- Hilabete batetik bi urtera bitarteko epean, abonatu izateari uztea eta/edo instalazioak ezin erabili izatea.

**Infracciones graves:**

- Pérdida de la condición de persona abonada y/o prohibición de la utilización de las instalaciones de un mes hasta dos años.

**nfrakzio arinak:**

- Gehienez hilabete bat arteko epean, abonatu izateari uztea eta/edo instalazioak ezin erabili izatea.

**Infracciones leves:**

- Pérdida de la condición de persona abonada y/o prohibición de la utilización de las instalaciones por un período de hasta un mes.

*33. artikulua.*

1. Instalazioak erabiltzean infrakzioa Buruntzaldeko Udaletako Kirol Zerbitzuen lankidetzako hitzarmenean partaide den beste udalerri bateko abonatu batek egiten duenean, santzioa ezartzeko tramitazioa infrakzioa gertatu den lekuko udalaren organoak egingo du.

2. Santzioaren erabakiaren berri, bai arau-hausleari, bai hitzartuta dauden Buruntzaldeko gainerako udaletako Kirol Zerbitzuei emango zaie, jakinaren gainean egon daitezen eta berehala aplika dezaten.

3. Erregelamendu honen xedeko kirol-instalazioak inolaz ere ezingo dituzte erabili honako xedapen hauetan erregelatutako kirol-instalazioen erabilerari edo entitate honekin hitzartuak dauden kirol-instalazioen erabilerari dagokion araudia ez betetzeagatik santzionatuak izan diren pertsonek.

4. Aurreko debeku hori agintari eskudunak ezarritako santzioa betetzen den bitartean egongo da indarrean.

5. Entitate honek edo beronekin hitzartuak dauden entitateek kautelaz suspendituta aurkitzen diren pertsonek ere ezingo dituzte instalazioak erabili.

*Artículo 33*

1. Cuando la infracción en el uso de las instalaciones la cometa una persona abonada de otro Municipio que participa en el convenio de colaboración de los Servicios de Deportes de los Municipios de Buruntzaldea, la tramitación de la sanción la realizará el órgano del Municipio donde se ha cometido la infracción.

2. El acuerdo de la sanción será notificado tanto a quien infringe como al resto de los Servicios de Deportes de los municipios convenidos de Buruntzaldea para su conocimiento y aplicación inmediata.

3. En ningún caso podrán usar las instalaciones deportivas objeto de este Reglamento las personas que hayan sido sancionadas por incumplimiento de la normativa correspondiente al uso de las instalaciones deportivas reguladas en las presentes disposiciones o de aquellas instalaciones deportivas convenidas con esta entidad.

4. La prohibición anterior se extenderá durante el periodo de cumplimiento de la sanción impuesta por la autoridad competente.

5. Tampoco podrán usar las instalaciones aquellas personas que se encuentren suspendidas cautelarmente por esta entidad o por entidades convenidas con la misma.

*34. artikulua.*

Araudi honetan jasotako santzioak ezartzeko, Euskadiko Komunitate Autonomoko administrazio publikoen santzionatzeko ahalmenaren gaineko 2/1998 lege otsailaren 20koak dioena aplikatuko da.

*Artículo 34*

Para la imposición de sanciones recogidas en esta normativa se aplicará la Ley 2/1998 de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## BEDERATZIGARREN TITULUA
## AZKEN XEDAPENAK

## TÍTULO NOVENO
## DISPOSICIONES FINALES

*35. artikulua.*

Zerbitzu jakin batzuen erabilera beste artikulu osagarri eta hedatuago batzuk egiteko motibo izan

*Artículo 35.*

El uso de determinados servicios podrá ser motivo de un articulado complementario y de mayor amplitud, para un mejor entendimiento de las personas usuarias.

daiteke, erabiltzaileek hobeto ulertzeko.

*36. artikulua.*
Erregelamendu honetan aipatzen ez diren kasuak, hasiera baten behintzat, Udalaren Kirol Zerbitzuko arduradunek ebatziko dituzte.

*Artículo 36.*
Aquellos casos que no estén contemplados en este Reglamento serán solucionados, en principio, por las personas responsables del Servicio Municipal de Deportes.

*37. artikulua.*
Erregelamendu honi egin dakizkiokeen aldaketak modu egokian emango dira argitara, ahalik eta gehien ezagutarazteko.

*Artículo 37.*
Las modificaciones a este Reglamento se publicarán de forma adecuada para lograr su máxima difusión.

*38. artikulua.*
Honako Erregelamendu hau, onesteko behar dituen tramite guztiak bete ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hamabost egunera sartuko da indarrean.»

*Artículo 38.*
El presente Reglamento entrará en vigor, tras los trámites de aprobación oportunos, a los **quince** días de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.»